

# Fernando Artola «Bordari»-ri omenaldia

HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean  
Euskaltzain emeritua eta  
Literatura Ikerketa batzordeburua

Alkate jauna,  
Euskaltzainburu jauna,  
Euskaltzain kideak,  
Jaun-Andereak agur.

Eskerrak zuri, alkate jauna, Udaletxeko atea idekirik guretzat harrera oparoa egin diguzulakotz.

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordea bildu da gaur goiz eta aratsaldez eta bilduko da ere bihar goizean Udaletxe honetan. Alabainan, jardunaldiak antolatu ditu gai bat sakondu beharrez: Literaturaren historiografia. Elgarretaratuak ziren dotzena bat ikerle, gehienetan Unibertsitateko irakasle, haien artean gazte batzu, lorietan nagola horrekin.

Bertzalde, Literatura Ikerketa Batzordeak pentsatu du Hondarribian bildurik, beharrezkoa zela omenaldi baten eskaintzea Fernando Artola «Bordari» literatura izenordez haren sortzearen mendeurrenean (1911-2011). Ene lekukotasun xumearen emaiteko diot ezagutu dudala Bordari Euskaltzaindian, harekin harremanetan sartu nintzala 1962an euskaltzain izendatu nindutelarik. Gizon ixila, atsegina, oroit naiz nola enekin Iparraldeaz mintzatzen zen. Alabaina, Iparraldeko oroitzapenak bazituen eta, bereziki lokarri sendoak sortu zituelakotz bere esposa zenarekin.

Hortakotz bihotz-bihotzez agurtzen ditut gaur haren seme-alabak eta senideak. Holako omenaldiak ospatzen ditu urtero Euskaltzaindiak bere Lite-

ratura Ikerketa Batzordearen bitartez, eginbidetzat hartzen baitu euskal idazleen oroitzapenaren gordetzea.

Literatura Ikerketa Batzordeak galdegin dio Herri Literatura Batzordeari parte har zezan omenaldi honetan eta pentsatu du hondarribiar baten lekukotasuna beharrezkoa zela.

Mintzatuko dira, beraz, zuen aitzinean lehenik Txomin Sagarzazu, «Fernando Artola “Bordari” eta Hondarribia» txostenarekin, gero Herri Literatura Batzordearen izenean Pello Esnal eta Jose Mari Iriondo, «Fernando Artola “Bordari” gizon osoa» gaiarekin eta azkenik Literatura Ikerketa Batzordearen izenean Patri Urkizu eskainiz «Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan» deritzan mintzaldia. Entzunen ditugu gogoan dugularik Bordari euskaltzalea eta idazlea.